

1

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

66/2023 Foru Agindua, otsailaren 8koa, zeinaren bidez onesten baitira ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzeari aplikatzeko.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan ezartzen du merkatuko batez besteko prezioak balioak egiaztatzeko bitartekoetako bat direla.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 86. artikuluko 2. apartatuan xedatzen duenez, balio egiaztapena merkatuko batez besteko prezioen arabera egiten denean, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru aginduz onartu eta argitaratu ahal izango du batez besteko prezio horiek ondasun motaren arabera kalkulatzeko erabiliko den metodologia edo sistema, baita hortik ateratzen diren balioak ere.

Orain artean bitarteko hori jo da egokitzen garraiobide pribatuen balioak egiaztatzeko, eta horren ondorioz, urtero propio onartutako foru aginduan jasota utzi dira ez bakarrik turismo ibilgailuen, autokarabanen, lur orotarako eta motozikleten merkatuko prezioak, baita aisiarako itsasontzienak ere.

Bestalde, abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarenak, 45. artikuluan dio Administrazioaren egiaztapenetik kanpo geratuko dela errepidez zirkulatzeko ibilgailu motordun mekaniko erabilien balioa, bai eta itsasontzi erabiliena ere, aldian-aldian foru agindu bidez argitaratzen diren batez besteko salmenta prezioen tauletan jasota badaude.

Aipatutako tauletan, ibilgailu edo urontziaren erabilera urteen arabera aplikagarri diren balio galerako portzentajeak jasoko dira.

Balorazio hori berdin aplikatu da orain arte bai oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan eta bai zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian ere.

Orobat, Ondarearen gaineko Zergari buruzko ekainaren 11ko 2/2018 Foru Arauak 20. artikulua bigarren paragrafoan ezartzen du ezen zergadunek, merkatu balioa zehazteko, erabil ditzaketela zergaren sortzapean egunean ibilgailu erabiltentzat indarrean dauden balorazio taulak, hain zuzen ere ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarako eta oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergarako Foru Aldundiak onartutakoak.

Aipatutako ibilgailuen azken eguneratzea otsailaren 17ko 98/2022 Foru Aginduaren bidez egin zen. Agindu horrek ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen ditu, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

Hori guztia dela-eta, bidezkoa da haiei aplikagarri zaizkien batez besteko salmenta prezioak eguneratzea 2023rako.

Modeloen eta prezioen taulak prestatzeko, garraiobideen fabrikatzaileen eta saltzaileen elkarteen argitalpenak erabili dira.

Bestetik, garraiobide jakin batzuek merkatuan izan duten bilakaera dela-eta, komeni da foru agindu honetan motozikleta elektrikoak eta quadak sartzea. Bilakaera horren beraren ondorioz, hainbat ibilgailu mota sortzen joan dira, hala nola SUVak. Batzuetan zaila izaten da ibilgailu horiek turismoaren edo lur orotako sektorean kokatzen diren bereiztea, eta, ondorioz, erabiltzaileek bi taulak kontsultatu behar izaten dituzte. Hori dela eta, aurtengo, I. eranskinean ez da bi ibilgailu moten arteko bereizketarik egingo.

Aurreko urteetan bezala, modeloen informazio eta identifikazio datu gisa ere zaldi potentzia (ZP) mantentzen da motorren potentzia adierazteko, ohiturari jarraituz. Izan ere, datu hori izaera komertzialeko datu orokorra da, automobilen zenbait modelo identifikatzeko balio duena, nahiz eta ez den inola ere Neurketa Unitateen Legezko Sisteman onartutako unitate bat (abenduarien 22ko 32/2014 Legea, Metrologiarena). Era berean, ibilgailu batzuk bereizte aldera, erabaki da merkaturatze aldia ere identifikazio elementu gisa erabiltzea, haien deitura denboraren joanean ere mantentzen baita. Izan ere, ibilgailu batzuk, desberdinak izanik ere, izen komertzial berdinarekin jarraitzen dute urte askotan. Era berean, errekuntza motorra duten motozikleta eta quaden batez besteko prezioak adierazteko, haien motorraren tamaina hartzen da berriro kontuan, zentimetro kubikotan adierazia. Motozikleta elektrikoak batez besteko prezioak, berriz, motorrak garatutako potentziaren arabera bereizten dira, kW-tan adierazita.

Azkenik, zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, eta balorazioa Europar Batasuneko irizpideekin bat etor dadin, mantendu egin da aurreko urtean erabilitako formula, hau da, merkatuko balioak kanpo uzten da, zerga horren ondorioetarako, ibilgailu erabiliak dagoeneko jasan duen zeharkako zerga.

Bestetik, xedapean indargabetzailearen 2. apartatuan espresuki aitortzen da apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua indargabetzea, hain zuzen ere «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen, betiere abenduaren 5eko 564/2022 Foru Agindua argitaratu ondoren. Azken foru agindu horren bidez, onartu egiten da 587 eredua –Berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zerga. Autolikidazioa–, zehaztu egiten dira hura aurkezteko modua eta prozedurak nahiz zergaren itzulketa eskatzeko modua eta prozedura eta, azkenik, arautu egiten dira berotegi efektuko gas fluordunen gaineko zergaren erregistroko inskripzioa eta izakinen kontabilitatea eramatea.

Horrenbestez, hau

1. artikulua. Batez besteko prezio aplikagarrien taulak.

Onarturik geratzen dira ibilgailu eta itsasontzi erabilien batez besteko salmenta prezioak eta horien antzinatearen arabera balio-galeraren portzentajeak jasotzen dituzten taulak, foru agindu honetako I., II., III. eta IV. eranskinetan ageri direnak.

2. artikulua. Aplikazio eremua.

Foru agindu honen bidez onartzen diren batez besteko salmenta prezioak egiaztabide gisa erabili ahal izango dira ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzeko.

3. artikulua. Turismo ibilgailuen, autokarabanen, quaden eta motozikleten balioaren zehaztapena.

Dagoeneko matrikulatuta dauden turismo ibilgailuen, autokarabanen, quaden eta motozikleten balioa zehazteko, foru agindu honetako I. eranskinean ageri diren batez besteko prezioei agindu honetan IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jardura kontuan hartuta.

4. artikulua. Aisiarako urontzien, itsas motorren eta uretako motorren balioaren zehaztapena.

1. Aisiarako urontzien eta itsas motorren balioa zehazteko, bereizita baloratuko dira motorrik gabeko ontzia eta motorizazioa. Horretarako, foru agindu honen II. eranskinean jasotako balioak hartuko dira, eta foru agindu honen III. eranskinean jasotako taulako ehunekoak aplikatuko zaizkie, erabilitako urteen arabera, eta, ondoren, balio eguneratuak batuko dira, ontziaren balio osoa lortzeko.

2. Uretako motoen kasuan, balioa batera finkatuko da, kaskoaren eta motorizazioaren balorazio independenterik gabe. Horretarako, foru agindu honen II. eranskinean jasotako balioak hartuko dira eta III. eranskineko taulako portzentajeak aplikatuko zaizkie, aipatutako III. eranskinean jasotako erabilera urteen eta jarraibideen arabera.

5. artikulua. Balioa zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian zehazteko erregela berezia.

Zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziari dagokionez, erregela hauek aplikatuko dira:

Lehena. Foru agindu honetako I., II. eta III. eranskinetan ageri diren batez besteko prezioei agindu honetako IV. eranskinean jasotako taulan eta instrukzioetan ezarritako portzentajeak aplikatuko zaizkie, erabilpen urteak eta, hala badagokio, ibilgailuaren jardura kontuan hartuta.

Bigarrena. Garraiobideak atzerrian matrikulatuta egon badira, eta Gipuzkoan ibilgailu erabilien behin betiko lehen matrikulazioa egiten bazaie, aurreko lehen erregelari jasotakoaren arabera kalkulaturako merkatu baliotik zeharkako zergen kuoten hondar balioa kendu behar da. Horretarako, formula hau erabili ahal izango da:

MB

ZO =

$$1 + (\text{BEZ}^{\text{tasa}} + \text{ZGZB}^{\text{tasa}} + \text{BESTELAKO}^{\text{tasak}})$$

Hor:

ZO: garraiobide erabilien zerga oinarria zenbait garraiobideren gaineko zerga berezian.

MB: merkatu balioa, batez besteko prezioen taulen arabera kalkulatu IV. eranskineko portzentajeak aplikatu ondoren.

BEZ tasa: garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboa Espainiako lurralde eremuan egiteko unean indarrean dagoen zerga tasa, BEZarena, bateko hainbestean adierazia.

ZGZB tasa: garraiobidearen lehen matrikulazio efektiboa Espainiako lurralde eremuan egiteko unean zenbait garraiobideren gaineko zerga bereziagatik exijituko zen zerga tasa, bateko hainbestean adierazia.

BESTELAKO tasak: garraiobidearen erosketa kargatu duten zeharkako beste zerga guztien karga tasak batzearen emaitza, bateko hainbestean adierazia, baldin eta merkatu balioan sartuta badaude.

Xedapen gehigarri bakarra. Foru agindu honetan sartu gabeko ibilgailuak.

1. Ekainaren 19ko 293/2019 Foru Aginduan aipatzen diren ibilgailuen batez besteko salmenta prezioak foru agindu honetan jasotzen ez diren bitartean, indarrean jarraituko du aipatutako Foru Aginduak, abenduaren 28ko 0662/2018 Foru Aginduan sartu gabeko ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko onartzen dituenak.

2. Ekainaren 19ko 293/2019 Foru Aginduan abenduaren 28ko 0662/2018 Foru Aginduari buruz egindako aipamenak foru agindu honi buruz egindakotzat joko dira.

Xedapen indargabetzailea.

1. Indarrik gabe geratzen da otsailaren 17ko 98/2022 Foru Agindua, ibilgailu eta itsasontzien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituen ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga, oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga, zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia, eta ondarearen gaineko zerga kudeatzean aplikatzeko.

2. Indargabetuta gelditzen da apirilaren 22ko 173/2015 Foru Agindua, «Berotegi efektuko gas fluordunekin egindako eragiketen aitorpen laburbiltzailea» izeneko 586 eredua onartu eta hori aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituen.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2023ko otsailaren 8a.—Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua. (939)





Matrikulatu ondorengo lehen urtean erabilitako ZIKLOMOTOR ETA MOTOZIKLETA elektrikoak
batez besteko prezioak

Precios medios de CICLOMOTORES y MOTOCICLETAS eléctricos, usados durante el primer año
posterior a su matriculación

2023ko ekitaldirako balioak / Valores para el ejercicio 2023

Potentzia kW (ZP) / Potencia kW (CV)	Prezioak/Precios
	Eurotan/Euros
2 kW-raino (2,71 zp) / Hasta 2 kW (2,71cv)	1.100
2,01 kW-tik (2,71 zp) 4 kW-ra (5,4 zp) / De 2,01 kW (2,71 cv) a 4 kW (5,4 cv)	1.500
4,01 kW-tik (5,41 zp) 6 kW-ra (8,2 zp) / De 4,01 kW (5,41 cv) a 6 kW (8,2 cv)	2.000
6,01 kW-tik (8,20 zp) 9 kW-ra (12 zp) / De 6,01 kW (8,20 cv) a 9 kW (12 cv)	2.500
9,01 kW-tik (12,01 zp) 12 kW-ra (16 zp) / De 9,01 kW (12,01 cv) a 12 kW (16 cv)	3.000
12,01 kW-tik (16,01 zp) 15 kW-ra (20 zp) / De 12,01 kW (16,01 cv) a 15 kW (20 cv)	3.500
15,01 kW-tik (20,01 zp) 20 kW-ra (27 zp) / De 15,01 kW (20,01 cv) a 20 kW (27 cv)	4.000
20,01 kW-tik (27,01 zp) 25 kW-ra (34 zp) / De 20,01 kW (27,01 cv) a 25 kW (34 cv)	4.500
25,01 kW-tik (34,01 zp) 30 kW-ra (41 zp) / De 25,01 kW (34,01 cv) a 30 kW (41 cv)	5.700
30,01 kW-tik (41,01 zp) 40 kW-ra (54 zp) / De 30,01 kW (41,01 cv) a 40 kW (54 cv)	8.500
40,01 kW-tik (54,01 zp) 55 kW-ra (75 zp) / De 40,01 kW (54,01 cv) a 55 kW (75 cv)	12.000
55,01 kW-tik (75,01 zp) 75 kW-ra (102 zp) / De 55,01 kW (75,01 cv) a 75 kW (102 cv)	14.500
75,01 kW-tik (102,01 zp) 90 kW-ra (122 zp) / De 75,01 kW (102,01 cv) a 90 kW (122 cv)	18.450
90,01 kW-koa (122,01 cv) edo potentzia handiagokoa / De 90,01 kW (122,01 cv) y superior potencia	20.000

Matrikulatu ondorengo lehen urtean erabilitako errekuntza motorreko ZIKLOMOTORREN ETA
MOTOZIKLETEN batez besteko prezioak

Precios medios de CICLOMOTORES Y MOTOCICLETAS de motor de combustión, usados
durante el primer año posterior a su matriculación

2023ko ekitaldirako balioak / Valores para el ejercicio 2023

Zilindrada / Cilindrada	Prezioak / Precios
	Eurotan / Euros
50 zil. artekoak / Hasta 50 c.c.	750
50,01 eta 75 zil. artekoak / De 50,01a 75 c.c.	950

<i>Zilindrada / Cilindrada</i>	<i>Prezioak / Precios</i>
	<i>Eurotan / Euros</i>
75,01 eta 125 zil. artekoak / De 75,01 a 125 c.c.	1.400
125,01 eta 150 zil. artekoak / De 125,01 a 150 c.c.	1.500
150,01 eta 200 zil. artekoak / De 150,01 a 200 c.c.	1.650
200,01 eta 250 zil artekoak / De 200,01 a 250 c.c.	1.900
250,01 eta 350 zil artekoak / De 250,01 a 350 c.c.	2.750
350,01 eta 450 zil artekoak / De 350,01 a 450 c.c.	3.400
450,01 eta 550 zil. artekoak / De 450,01 a 550 c.c.	3.750
550,01 eta 750 zil artekoak / De 550,01 a 750 c.c.	6.200
750,01 eta 1.000 zil. artekoak / De 750,01 a 1.000 c.c.	9.300
1.000,01 eta 1.200 zil artekoak / De 1.000,01 a 1.200 c.c.	11.800
1.200,01 eta zil. handiagokoak / De 1.200,01 c.c. y superior cilindrada	14.900

Matrikulatu ondorengo lehen urtean erabilitako QUADSen batez besteko prezioak

Precios medios de QUADS usados durante el primer año posterior a su matriculación

2023ko ekitaldirako balioak / Valores para el ejercicio 2023

<i>Zilindrada / Cilindrada</i>	<i>Prezioak / Precios</i>
	<i>Eurotan / Euros</i>
50 zil. artekoak / Hasta 50 c.c.	1.200
50,01 eta 75 zil. artekoak / De 50,01a 75 c.c.	1.600
75,01 eta 125 zil. artekoak / De 75,01 a 125 c.c.	2.100
125,01 eta 150 zil. artekoak / De 125,01 a 150 c.c.	2.650
150,01 eta 200 zil. artekoak / De 150,01 a 200 c.c.	3.300
200,01 eta 250 zil artekoak / De 200,01 a 250 c.c.	4.200
250,01 eta 350 zil artekoak / De 250,01 a 350 c.c.	5.500
350,01 eta 450 zil artekoak / De 350,01 a 450 c.c.	7.100
450,01 eta 550 zil. artekoak / De 450,01 a 550 c.c.	8.750
550,01 eta 750 zil artekoak / De 550,01 a 750 c.c.	11.300
750,01 eta 1.000 zil. artekoak / De 750,01 a 1.000 c.c.	15.200
1.000,01 eta zil handiagoak / De 1.000,01 c.c. y superior cilindrada	18.900



III. ERANSKINA

ITSAS MOTORRAK

Itsas motorraren oinarritzko balorazioa, izan dezakeen transmisio motaren arabera (karelez kanpoko, karelez barrukoa, karelez kanpoko eta barrukoa).

Potentzia mekaniko errealeko unitatea (kW edo zp), erregaiaren arabera:

	<i>Gasolina (Euroak/kW erreala)</i> <i>Gasolina (Euros/kW real)</i>	<i>Diesela (Euroak/kW erreala)</i> <i>Diesel (Euros kW real)</i>
37 kW bitarte /Hasta 37 kW	99,12	169,92
Hortik gorako kW bakoitzeko / Por cada kW más	63,73	99,12

	<i>Gasolina (Euroak/zp. erreala)</i> <i>Gasolina (Euros/cv. real)</i>	<i>Diesela (Euro/zp. erreala)</i> <i>Diesel (Euros/cv. real)</i>
50 bitarte /Hasta 50 cv.	73,34	125,72
Hortik gorako zp. bakoitzeko / Por cada cv más	47,15	73,34

Itsasontzietan, alde batetik itsasontzia baloratuko da, motorrik gabe, eta bestetik motorra, moto nautikoen kasuan izan ezik, horrelakoetan biak batera baloratuko baitira, «A motorra eta MN» zutabeen jasotako portzentajeekin bat.

Zerrendan ezarritako balioa itsasontziari dagokiona da (motorrik gabe), eta oinarri gisa erabiliko da kasu bakoitzean antzinatasunaren arabera eguneratzeko, balorazio portzentajeak aplikatuz, belaontziak edo itsasontzi motordunak diren kontuan hartuta.

Motorizazioaren oinarritzko balioa, osagarria belaontzien kasuan eta funtsezkoa ontzi motordunen kasuan, itsas motorraren oinarritzko balorazioaren arabera lortuko da, eta kasu bakoitzean balorazio portzentajea jarraituz eguneratuko da propulzio ekipoen antzinatasunaren arabera.

Eguneratutako balio osoa kalkulatzeko, batu behar dira motorrik gabeko ontzien balio eguneratua eta itsas motorren balio eguneratua, aurrez kalkulatuak.

Erabilera urteen arabera kalkulaturako balorazio portzentajeak, ontzientzat eta itsas motorrentzat Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako batez besteko prezioei aplikatuko beharrekoak:

Erabilpen urteak / Años de uso	Itsasontziak (motorrik gabe) Embarcaciones (sin motor)		Itsas motorrak haien transm. Motores marinos con su transmisión
	Belaontziak / A vela	Motordunak / A motor	
Urte 1 bitarte / Hasta 1 año	100	100	100
Urte 1etik gora eta 2 urtera arte / Más de 1 año, hasta 2	95	85	85
2 urtetik gora eta 3 urtera arte / Más de 2 años, hasta 3	89	72	72
3 urtetik gora eta 4 urtera arte / Más de 3 años, hasta 4	78	61	61
4 urtetik gora eta 5 urtera arte / Más de 4 años, hasta 5	70	52	52
5 urtetik gora eta 6 urtera arte / Más de 5 años, hasta 6	60	44	44
6 urtetik gora eta 7 urtera arte / Más de 6 años, hasta 7	55	37	37
7 urtetik gora eta 8 urtera arte / Más de 7 años, hasta 8	40	32	32
8 urtetik gora eta 9 urtera arte / Más de 8 años, hasta 9	38	27	27
9 urtetik gora eta 10 urtera arte / Más de 9 años, hasta 10	35	23	23
10 urtetik gora eta 11 urtera arte / Más de 10 años, hasta 11	30	19	19
11 urtetik gora eta 12 urtera arte / Más de 11 años, hasta 12	25	16	16
12 urtetik gora eta 13 urtera arte / Más de 12 años, hasta 13	20	14	14
13 urtetik gora eta 14 urtera arte / Más de 13 años, hasta 14	15	12	12
14 urtetik gora / Más de 14 años	10	10	10

IV ERANSKINA

Erabilpen urteen araberako balorazio portzentajeak, matrikulatuta dauden turismo ibilgailuentzat, lur orotako ibilgailuentzat, autokarabanentzat eta motozikletentzat Ogasun eta Finantza Departamentuak ezarritako prezioei aplikatu beharrekoak:

Erabilpen urteak / Años de uso	Portzentajeak / Porcentajes
Urte 1 bitarte / Hasta 1 año	100
Urte 1etik gora eta 2 urtera arte / Más de 1 año, hasta 2	84
2 urtetik gora eta 3 urtera arte / Más de 2 años, hasta 3	67

<i>Erabilpen urteak / Años de uso</i>	<i>Portzentajeak / Porcentajes</i>
3 urtetik gora eta 4 urtera arte / Más de 3 años, hasta 4	56
4 urtetik gora eta 5 urtera arte / Más de 4 años, hasta 5	47
5 urtetik gora eta 6 urtera arte / Más de 5 años, hasta 6	39
6 urtetik gora eta 7 urtera arte / Más de 6 años, hasta 7	34
7 urtetik gora eta 8 urtera arte / Más de 7 años, hasta 8	28
8 urtetik gora eta 9 urtera arte / Más de 8 años, hasta 9	24
9 urtetik gora eta 10 urtera arte / Más de 9 años, hasta 10	19
10 urtetik gora eta 11 urtera arte/ Más de 10 años, hasta 11	17
11 urtetik gora eta 12 urtera arte/ Más de 11 años, hasta 12	13
12 urtetik gora / Más de 12 años	10

Aurreko portzentajeak aplikatuta ateratzen den zenbatekoa %70era murriztuko da, baldin eta eskualdatutako ibilgailua, sei hilabetetik gorako epean behin betiko lehenengo matrikulaziotik aurrera kontatuta, kontraprestazio bidezko gidarien irakaskuntzarako edo gidaririk gabeko ibilgailuen alokairurako erabili bada, edo, indarrean dagoen legeriaren arabera, taxi, autotaxi edo autoturismotzat hartuta badago.